

GURE JOSEBA (Nintzan eta Gorputz-atalak)

AMABI URTEKOA ZAN

Joseba anaia zan gure gogoan, aurreko idaz-lanean.

Joseba nire anaia zan, amabi urteko anaia bera, ni amar urtekoa nintzanean.

Umetako lagunak eta umetako jazokizunak ez dira ain errez aiztuten.

Orrillaren bigarren eguna zan. Anai biok olloentzat toki berezi bat egiten ibilli giñan eta amaren deia entzun zan:

—Joseba! Zoaz errira ta ogia ekarri.

ERRIRA JOAN ZAN

Joseba ez zan errira joaten zalea, etxe-zalea zan, baiña amaren esana egitearren joan egin zan.

Ni etxean geratu nintzan, oilloak zaintzen. Egun aretan ez gintzazan eskolara joan, orrillaren bigarren eguna askatasunaren edo ez dakit zelako jabetasunaren eguna (día de la independencia) zalako.

Guda-osteko lenengo ille batzutan ogi zuria zan erostekoa eta Joseba etxerantza etorri zan ogia-gaz. Bidean kamioi zar bat agiri zan aldatza igon-eziñik eta bertara igon zan.

ERRUKARRI GERATU ZAN

Etxera joateko bidearen parera eldu zan eta salto egin eban, kamioia geratu barik: Bide zabalean luze geratu zan gizajoa: Mutiko ederra, lodikotea, azur-zabala,

ule-gorria, ez gorputzez luze-luzea... bere berbetan zizi-paza apur bat entzuten zan. Bide ertzean errukarri geratu zan, gizajoa, eta auzoko gazte batzun etxera sartu zan gazte onein eskuetan.

Bere begi urdiñak itxita egozan eta ezpanen artzetik odol apur bat urteten ikusten zan. Ezker-aldeko saietz-ingurua baltz agiri zan, baiña azurrak guztiak osoak ziran bere gorputzean. Berbarik ez zan entzuten bere agotik, baiña begiak aldizka idegita ikusten ziran.

GAISO-ETXERA JOAN, ZIRAN

Basurto'ko gaiso-etxera eroan zan osatzen zan ikusteko, baiña osagilleak itxaropen barik egozan eta jaramon aundi barik geratu zan gaua igaroteko gaiso-etxeko ogean.

Kanpotik gorputza osorik agiri izan arren, barruko zauriak aundiak ziran, gibela edo guntzurrunak edo olako zeozer zaurituta, antza.

Goizaldean, eguna argitu baiño lenago, etorri ziran gure etxera Joseba ekarteko laguntzaille izan ziran gizonak eta etxera eldu zan une aretan il zan Joseba. Gure etxeko samintasuna ta negarrak neurri bakoak izan ziran.

ETXEAN GERATU NINTZAN

Orrillaren laugarren egunean izan zan illetea, goizeko amar eta

erdietan. Ni entxean geratu nintzan, umea nintzalako eta Joseba'ren gorpua aldapan gora errira eroaten ikusita, negarrez geratu nintzan neu be. Utsik geratu zan gure etxea.

Ituna benetan, errirantza Joseba'ren gorpua eroteko egin zan ibilbidea: aurretik otzaradun andrea, gero kurutzeduna, urrengo abadea eta onen ondoren ilkutxa zuriagaz eskolako ume-lagunak, kutxaren ostean aita ta gizonak eta azkenez ama ta andrak.

Errian eskolako ume lagunak egozan, batzuk negarrez, beste batzuk aurpegi illunaz.

ILLETA-OSTEAN BAZKARIA EGIN ZAN

Illeten ostean, orduko oiturea ran, kofradikoenak, iru meza abestugaz eta beste batzuk laburragoak, arantzelekoenak. Gu arantzelekoak giñan eta laburra egin zan, meza abestu bategaz.

Ollaten ostean, orduko oiturea zan lez, bazkaria egin zan, aita eta ama be bertan zirala.

UITSUNEA BETE BARIK GERATU ZAN

Gure ama orain sei urte il zan, larogei ta bost urtekoa zala eta Joseba aitatzen zan bakoitzean negarrez asten zan beti: Joseba'ren utsunea etxean betetu barik geratu zan.

MARTINTXU'k